



Abangoardia

Sarrera

1945. urtean Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, mundua, klase politikoa eta gizarte zibila, gerrak utzitako krisialdi ekonomikotik ateratzeko mekanismoak bilatzen ahalegindu zen.

Krisialdiak, arlo ekonomikoak ez ezik, arlo politikoak ere ukitu zituen. Hala, mundua, Gerra Hotza deiturikoaren ondorioz, bi bloketan zatituta gelditu zen: alde batetik mendebaldeko blokea, non kapitalismoa zen nagusi, eta bestetik ekialdeko blokea, komunismoaren sistema politikoak agintzen zuela.

Garai honetako ezaugarri bereizgarrienetariko bat deskolonizazio-prozesua izan zen. Europar herrialde askok (Espainiak, Ingalaterrak, Herbehereak...) Afrika eta Asian zeuzkaten koloniak galdu zituzten eta, beraz, kontinente horietan herrialde berriak sortu ziren, estatu-kopurua bikoiztea ekarriz.

Azkenik, aro hau beste krisialdi batez bukatu zen: 1973an izandako petrolioaren krisialdiaz, hain zuzen.

Horrek guztiak, ekonomian eta gizarte-politikan ez ezik, arte-adierazpenetan ere izan zituen ondorioak.

Artearen esparruan, aldi honetan, bi momentu edo garai ezberdintzen dira: bata, II. Gerra Mundiala bukatu eta 80ko hamarkada arte iraun zuena; eta bestea, 80ko hamarkadatik gaur egun artekoa.

Abangoardiako artea

XX. mendearen bigarren hamarkadatik gaur egunera bitarteko arte-proposamenez hausnartzea zaila da, zaila den bezala urte hauetako artearen helburu zehatzak identifikatzea.

Hala ere, argi dago apurketa- eta askatasun-kontzeptuekin lotu daitezkeela azken urteetako estiloak, horiek baitira proposamen gehienek ezaugarri komunak. XX. mende hasieran artearen iraultza ekarri zuen mugimenduaren oinordekoa da garai honetako mugimendua. XX. mende erdialdetik aurrera, abangoardia historikoen ezaugarriak errepikatzen dira. Errealitatetik abiatzen dira beren helburuak adierazteko eta horren ondorioz aniztasuna da nagusi. Gainera, inoiz baino errazagoa suertatzen zaie artistei beren lana zabaltzea, bai eta besteek egiten duten lanaren berri jasotzea ere.

Arte plastikoetan abstrakzioa da nagusi eta material ezberdinen nahasketa. Arkitektura, aldiz, aurrerapen teknologikoez jabetzen da, material berriak gehitzen hasten da eta proiektu berriak informatikaren eta ingeniartzaren laguntzaz ateratzen dira aurrera.

Bestalde, New York hiria artearen hiriburu artistikoa bihurtzen da zenbat faktore direla medio: Europako II. Gerra Mundialetik ihesi ateratako hainbat artistak hiri horretan hartu zuten babes; gainera, arte garaikidearekiko estimazioa eta bildumazaletasuna ikaragarri handitu ziren, esate baterako, MOMA museoaren eraikuntzarekin batera.

Abangoardiak Euskal Herrian

XX. mendeko bigarren aldi hori Euskal Herriarentzat oso zaila izan zen. Espainia Francoren diktadurapean zegoen eta politika- eta kultura-errepresio gogorra jasaten ari zen. Frankismoak gerra aurreko arte-adierazpen guztiak gogor zapaldu zituen; izan ere, Erregimenak espainiar inperioaren aldi distiratsuenetako arte-estiloak berrezarri nahi zituen, Espainiaren aldi historiko arrakastatsua goraipatzeko asmoz.

Hala ere, 50eko hamarkadaren azken urteetatik aurrera, ekonomiaren garapenari esker, lehen aldaketa seinaleak eman ziren. Alde politikoan inolako aurrerapausorik eman ez arren, kulturean zerbait aldatzen ari zela zirudien. Euskal Herriara, adibidez, XX. mendeko lehen erdiko europar abangoardia historikoak sartu ziren.

Momentu hori aprobetxatuz, euskal arteak bertako abangoardia propioa sortzeko aukera izan zuen.

Francoren diktadura desagertu eta demokrazia ezartzea lortu zenean Hego Euskal Herrian, arlo guztietan gertatu zen loraldi garai bati eman zitzaion hasiera, baita artearen arloan ere.

Abangoardiako arkitektura

Bigarren Mundu Gerra amaitu eta lehen urteetan estilo arrazionalistaren eta organizistaren jarraipen bat egon zen. Estilo haien zenbait ezaugarri ere mantendu ziren urte batzuetan, hala nola, forma askeko oinak, funtzionaltasuna edo dekorazio eza. Ezaugarri horiek guztiek gaur egun arte iraun dute gainera. Hirurogeiko hamarkadatik aurrera ematen zaio hasiera postmodernitate izenez ezagutzen den garaiari.

Arkitekturari begiratuz, joera postmodernoak pentsamolde berria ekarri zuen, hau da, historia berreskuratzea proposatzen zuen diziplina, baina XX. mendeko testuinguru berria kontuan hartuz. Laurogeiko hamarkadan, ezaugarri nagusia askatasun formala izan zen eta nolabaiteko eklektizismoa nagusitu zen (gogoratu eklektizismoak estilo ezberdinak obra bakarrean elkartzea zuela helburua). Modu horretan, oso tradizio ezberdinak elkartu ziren: funtzionaltasuna, espresionismoa, historizismoa eta erregionalismoa.

Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, arkitekturak lengoaia modernoaren arrazionalismoa berreskuratu zuen, irakurketa minimalista, erraz, urri eta soilaren bitartez.

Nazioarte mailan arkitekto ezagunenetakoak hauek izan ziren: Charles W. Moore, Robert Venturi, Michael Graves eta Philip Johnson, besteak beste. Lanen artean, azpimarratzekoak dira Michael Graves-en Portland eraikina, Philip Johnsonen Sony eraikina (AT&T izan zen bere jatorrizko izena) edo Berlingo Tegel Harbor Housing Moore eraikuntza.

XXI. mendearekin batera ingeniari, informatika eta beste diziplina batzuk ere gehitu ziren arkitektura-proiektuetara. Garai honetako arkitekto esanguratsuenetakoa Frank Gehry kanadar arkitektoa dugu. Bere diseinuetan aipatutako diziplinak erabiltzeaz gain, oso gustukoa du titaniozko plakekin lan egitea.

Arkitektura Euskal Herrian

1930eko hamarkadan ordurako kritikoa zen euskal eraikuntzaren egoera laztu zuen Gerra Zibilak; kapital pribatua ez zegoen prest higiezinaren sektorean dirua jartzeko eta Estatu espainiarra bilakatu behar izan zen eraikuntzaren bultzatzaile nagusia. Estiloari dagokionez, Smith, Bastida, Ispizua, Aginaga eta Unanue arkitektoek arrazionalismoaren planteamendu formalen arabera jarraitu zuten lan egiten.

Gerra Zibila ondoren, Espainiako diktaduraren agintetza politikotik bertatik eskatu zitzairen arkitektoei estilo nazionala bilatu eta hura ezartzea bertako arkitektura berri bezala. Estilo "nazional" hura bilatu nahirik, arkitektoek historizismora eta monumentaltasun arkitekturara jo zuten eta "espainol" jotzen ziren estiloak berreskuratu ziren 40ko hamarkadan. Eredu bezala El Escorial monasterioa hartzen zen eta Pedro Muguruza Otaño eta Pedro Bidagor Lasarte arkitekto eta urbanistek zeresan handia izan zuten haren zabalkunde eta ezarpenean. Garai hartakoak dira esate baterako Donostiako apaiztegia, Gernikako Plaza Nagusia, Hondarribiko arrantzaleen etxeak eta abar.

Arte plastikoen kasuan gertatu zen bezala, Euskal Herrian 50eko hamarkada arte ez zen abangoardiako artera irekitzeko ahaleginik azaldu.

Arkitekturan ere, 50eko hamarkadan sartuta aurkitzen dugu Euskal Herrian abangoardiako lehen obra enblematikoa: Oñatiko Arantzazuko basilika (1950-1954), L. Laorgarena eta J. Saenz de Oizarena. Oraindik ere tradizioan txertaturiko elementu asko zituen eliza bat proposatu bazuten ere, Europatik zetorren arkitektura-estilo modernoaren elementuak aurki zitezkeen bertan. Garaiko punta-puntako hainbat pintorek eta eskultorek ere (Txillida, Oteiza, Basterretxea, Ibarrola) esku hartu zuten hartan.

1960ko hamarkadan zehar, bestalde, bere lehen lanak gauzatu zituen L. Peña Gantxegi gipuzkoarrak. Gerraosteko euskal arkitekturan arkitekto funtsezkoa izan zen. Haren helburua zen euskal arkitektura tradizionalerako osagai jakin batzuk bereganatzea hizkuntza formal autoktono bat berreskuratzeko. Eraikin pribatu asko egiteaz gain (Zarauzko, Mutrikuko edo Oiartzungo hainbat etxebizitza), Gasteizko San Frantzisko eliza ere eraiki zuen. Hiri-erabilerako garrantzizko guneen birmoldaketan ere parte hartu zuen Peña Gantxegik: Donostian, Trinitateko plaza eta Haize Orrazia; eta, Foruen plaza Gasteizen, Eduardo Txillidarekin batera.

Ezin utzi aipatu gabe XX. mende amaierako azken hamarkadetan eta XXI. mende hasieran kanpoko arkitektoek euskal lurretan egin dituzten arkitektura-lanak. Azken urteotan zirrara eragin dute horietako bik. Lehenengoa, Bilboko metroa, Norman Foster britainiarraren obra, ezin hobeto uztartzen dituena ingeniari eta arkitektura. Aipagarriak dira lurpeko galeria kurbatuak, zulatze sistemaren berezko forma adierazten dutenak, eta oro har eskailerak eta metrorako sarrerak. Bigarren eraikin handia, zentzu guztietan, Bilboko Guggenheim museoa da, Frank Gehry kanadarrarena. Bilboko itsasadarraren ertz industrialean jaso dago, eta, era horretan, bere gain hartzen du hiri-egitura konplexua. Eraikuntza kurbatu hau aurrera eramateko industria aeroespazialaren programa informatikoa erabili behar izan zuten.

Miresgarria izan da eraikuntza batek zein besteak hiriaren transformazioan izan duten eragina, bai egituragatik, baita ahalmen sinbolikoagatik ere.

Eraikuntza-elementua

Orokorrean garai luze honetan garatutako estiloen ezaugarri nagusiak hauek dira:

- XXI. mendean material berriak uztartzeari ekiten zaio, esate baterako, aluminioa edo titanioa.
- Arkitektura obra handiak hiri-espazioa eraldatzera datoz.
- Arkitekturako proiektuetan, arkitektoak ez ezik informatikariek eta ingeniariak hartzen dute parte.
- Teknologia berriak arkitekturaren esanetara jartzen dira forma bihurri eta bortitzak lortzeko.
- Abangoardiako arkitektura-estiloek aurreko estiloen eragina eta fusioa bilatzen dute.
- Arkitektoak protagonismoa eskuratzen du eta proiektuaren izarra bilakatzen da.
- Eraikina bera, bere osotasunean, eskultorikoa da.
- Eraikuntza kurbatuak aurrera eramateko, industria aeroespazialaren programa informatikoak erabiltzen dira.

Eraikinaren izena

Il Iesu eliza. Donostia (Gipuzkoa).

Estiloa / Garaia

XXI. mendea

Eraikinaren funtzioa

Arkitektura erlijiosoa

Deskribapena

Eliza honen ezaugarri adierazgarriena diseinu geometrikoa eta minimalista da. Eliza bera kubo baten barnean kokatzen da eta altuera handia hartzen du. Fatxadan, hiru elementu apaingarririk, eraikinaren erabilera erlijiosoa erakusten dute: gurutzea, kanpaiak eta beiratea. Elizarekin batera, L forma duen beste eraikin bat dugu, aurrekoari atxikia, hainbat zeregin erlijioso biltzen dituen -bilera gelak, esaterako-. Azkenik, bi eraikinak elkartu eta patio bat sortzen duen horma zuzena daukagu. Multzo osoaren berezitasun handiena sotoan aurkitzen da, kotxeentzako aparkalekuaz gain supermerkatu bat baitago. Hala ere, supermerkatuaren sarrera funtzio erlijiosoetatik bereizita dago eta sarlekua beste maila batean du.

Arkitektoa

Rafael Moneo

Eraikinaren izena

Marques de Riscal upeltegia. Eltziego (Araba)

Estiloa / Garaia

XXI. mendea

Eraikinaren funtzioa

Arkitektura zibila

Deskribapena

Altzairua, hormigoi armatua eta hormigoi post-tenkatua uztartzen dituen hibridoa da Gehry-ren eraikina. Hormigoizko hiru zutabe erraldoiak dira eraikin osoan ageri diren zutabe bakarrak. Egitura metalikoak estalkia jasaten du, geometriaren triangulazio teknikaz baliatuz. Estalkia osatzeko honako hauek erabili dituzte: altzairu herdoilgaitza, ispiluak eta koloredun titanio xafla kurboak. Forma irregularrak sumatzen dira: solairu bakoitza ezberdina da, baita leihate guztiak ere.

Arkitektoa

Frank Gehry

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Koroatzearen eliza. Gazteiz (Araba)

XX. mendea

Arkitektura erlijioso

Miguel Fisac arkitektoak diseinatu zuen Gasteizko Andre Mariaren Koroatzearen eliza. Haren oin-planoa nabe bakarrekoa da. Bi murrak definitzen dute espazioa: bata kurbatua eta zuriz margotua da, eta bestea, zuzena, harrizkoa, eta zulo bertikal txiki batzuk dituena. Pareta horrek amaieran leiho bat du, aldaretik gertu, eta hortik sartzen da argi gehiena.

Miguel Fisac

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Arantzazuko Santutegia. Oñati (Gipuzkoa)

XX. mendea

Arkitektura erlijioso

Abangoardiako arkitekturaren lehen eraikina Euskal Herrian. Elizaren oin-planoa gurutze-formakoa da eta absidea aldiz erdizirkularra. Bertan Lucio Muñozek egindako erretaula kokatzen da. Nabe luze eta zabalaren alboetan, kaperak daude. Elizara sartzeko ateak Txillidak egin zituen eta ateen gainean beste eskultore famatu baten sormena ageri da, Oteizaren apostoluak eta Pieta eskultura alegia. Fatxadaren alboetan, bi dorre karratu daude eta atzealdean kanpandorrea; hirurak diamante itxuran landutako harriz josiak. Arkupe batek elkartzen ditu fatxada eta kanpandorrea.

Javier Sáenz de Oiza

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioa. Iruñea (Nafarroa)

XXI. mendea

Arkitektura zibila

Baluartek kokapen pribilegiatua du: hiriko merkataritza gunen dinamikoenak eta Iruñako Ziadadela gurutzatzen diren tokia. L formako bolumena du eraikinak eta, horrela, oinezkoentzat plaza handia osatzen da. Kanpoaldea, plazaren aldera, Zinbawetik ekarritako kuartzita plakaz estalita dago. Barne antolaketa garbia da, areto nagusiak alde batetik eta erakusketa eta batzar aretoak bestetik. Bien artean geratzen den espazioak harrera nagusi handia osatzen du.

Patxi Mangado Beloki

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Kursaal jauregia, musika gune eta biltzar jauregia. Donostia (Gipuzkoa)

XX. mendea

Arkitektura zibila

Rafael Moneo arkitektoak egin zuen proiektua. Beira zeharrargiko bi prisma nagusiz osatua dago, harrizko plataforma oinarri duela. Donostiako Zurriola hondartza alderantz terrazak irekitzen dira, itsasoaz gozatzeko, eta hirirantz sarrera nagusiak, dendak eta erakusketa aretoak, Zurriola hiribideari kale giroa emateko. Prisma bakoitzak areto bat du barnean, zurezko oholez estalia: auditorioa eta ganbera aretoa.

Rafael Moneo

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Euskalduna Jauregia. Bilbo (Bizkaia)

XX. mendea

Arkitektura zibila

Bilboko Euskalduna Jauregia Federico Soriano eta Dolores Palaciosen obra da. Eraikinak erabilera bikoitza du, hau da, kongresu eta musika jauregi bezala funtzionatzen du. Oinarrizko ideia lanari ekitean eraikinak itsasontzi baten itxura eskaintzea zen. Horretarako, ontzigintzarako erabiltzen diren teknika, teknologia eta materialak erabili zituzten arkitektoek. Bestalde, bi fatxada erabat desberdin ikus ditzakegu: itsasadarraren aldekoa herdoildu itxura ematen dion altzairuzkoa da eta hiriaren aldekoan, berriz, beira eta altzairua dira erabilitako materialak.

Federico Soriano eta Dolores Palacios

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Teniseko Plaza (Donostia)

XX. mendea

Arkitektura zibila

Plaza hau, granito arrosaz eraikia, terrazetan antolatuta dago. Plaza xume, sinple eta soil ikusten da. Horrela, alde batetik ingurumena bera nabarmentzen da (itsasoa, mendia, landareak) eta bestetik Txillidaren eskultura lana, Haizearen orrazia. Zazpi zuloren bitartez, plazak lotura zuzena dauka itsasoarekin. Askotan ikusi izan dugun bezala, itsasoak indarrez jotzen duenean aparrak gora egiten du.

Luis Peña Ganchegui